



Iazko Kirikoketa Besta. IDOIA ZABALETA / ARGAZKI PRESS

SAGARDOAREN ERRITMOAN

Udazkenero, Arizkuneko Kirikoketa Besta antolatzen du Jo Ala Jo kultur taldeak. XVIII. mendeko Gamioxarre dolaretxea martxan jartzen dute, eta antzina sagardoa egiten zuten modua erakusten dute.

Kirikoketa Bestak tradizioaren, folkloreaken eta garai bateko ofizioaren oihartzunak ekartzen ditu urtero Arizkunera, udazkenean. *Ki-ri-ko-ke-ta* egurrezko mazoek sagarrak zanpatzeko oholaren kontra egiten duten hotsa da. Sagardogintza, musika eta dantza uztartzen ditu Kirikoketa Bestak, eta, urtero, Gamioxarre dolaretxea txiki geratzen da biltzen den jendetza hartzeko.

Jo Ala Jo kultur taldeak urriaren 24an antolatu zuen 16. Kirikoketa Bestan

3.000 bat kilo sagar txikitu zituzten, antzinako erara, eskuz eta lanabes zaharrek. Tradizioari lotuta, garai hartako langileen rola betetzen dute Jo Ala Jo elkarteko kide guztiek, laborariz jantzita. Lanean hasi baino lehen, negoziazio bat irudikatzen dute: egun osoko lanaren truke, sos bat eskaintzen die nagusiak; laborariek, ezetz eta ezetz. Antzeztutako eztabaidaren ostean, tratua ixten dute, txalo eta irri artean, eta sagarra jotzen hasten dira.

Jo Ala Jo elkartekoak sartzen dira Ga-

mioxarrera lehenbizi. Etxeko ganbarara joaten dira batzuk, tranpaletik behera, sagarrak dolarera botatzeko. Beste batzuk, oinutsik eta egurrezko mazoak eskuan, beheko solairuan gelditzen dira, sagarrak dolarera erortzen diren heinean, txikitzen hasteko. Orduantxe entzuten hasten dira sagar jotzearen hotsak, eta kirikoketaren erritmoan, kantatzen hasten dira laborariek: «Aldapeko sagarraren adarraren puntan...»

MUSIKA ETA DANTZA

XVIII. mendeko beharginak ere kantuan aritzen ziren fruta puskatzen zuten bitartean, erritmoari eutsi eta lana bera jasangarriagoa egiteko. Horrela sortu zen kirikoketa, musika tresna gisa: egurrezko mazoekin oholak jota.

